



“Aurreraxeago, denak zaldi
 gainera igo dira, eta ilaran
 jarraitu dute aurrera. Bidez
 bide, inguruak ondo
 ezagutzen dituen norbait
daramate gidari.”



Juan Kruz Igerabide: *EZ LEMAIO. Arrasateren erreketeta*, Beta, 2017.


- * ... ondo ezagutzen dituen norbait daramate gidari **bezala**. (Ikus EHULKUren aholkua: *Kalko Okerrak: "bezala"*)
- * ... ondo ezagutzen dituen norbait daramate gidari**a**.



Zenbait aditzek¹ atributu-funtzioan har ditzakete izenak: izen horien bidez, objektu edo izaki baten nolakotasuna edo egoera adierazten da; esaterako, lehen diapositibako adibidean, **gidari** izatea da gizaki bati egokitzen zaion atributua. Halako izenak absolutibo mugagabea jokatzen dira:

*... daramate **gidari***

(1) *Aritu, bidali, egin, eraman, hartu, hautatu, ibili, ipini, izan (ukan), izendatu, jardun, jarri, joan, kontratatu, sartu, sentitu...*



Traidore bat **dute laguntzaile**, norbaitek zabaldu baitie ate txiki bat.

* ... bat dute laguntzaile **bezala**...

* ... bat dute laguntzaile**a**...

Garxot Bañez alkatea **dator** denen **buru**.

* ... alkatea dator denen buru **bezala**...

Gizon batzuk (...) **zaindari jartzeko** eskatu zioat
 Olasori ...

* ... zaindari **bezala** jartzeko...

Juan Kruz Igerabide: *EZ LEMAIIO. Arrasateren erreketak*, Beta, 2017.



- Doktorego-tesia bukatu baino lehen, **irakasle hartu** ninduten unibertsitatean.

*... irakasle **bezala** hartu ninduten ...

- Alkateak hirigintza-zinegotzia **bidali** zuen **ordezkari**.

*... ordezkari **bezala** bidali zuen.

- Gizonezko bat **preso eraman** dute heriotza-mehatxuak egiteagatik.

- *Honoris causa* **doktore izendatu** zuen Lovainako Unibertsitateak, 2004an.



- Ameriketara joandako euskaldun asko **artzain aritu** ziren lurralde haien bakardadean.
- ... **artzain jardun** zuten ...
- ... **artzain ibili** ziren ...
- Euskaldun asko **artzain joan** ziren Ameriketara.
- **Gidoilari-zuzendari sentitzen** naiz, baina, zintzoa izanda, **zuzendari** baino gehiago **gidoilari naiz**.
- 1822an Zientzia Akademiako **idazkari egin** zuten Fourier.



- **Aprendiz hasi** zen aitaren enpresan duela hogeit urte, eta **aprendiz dago** oraindik.
- **Zuzendari kontratatu** zuten.
- **Apaiz sartu** nahi nuela esatea gurasoei eman niezaiekeen albisterik onenetakoa zen.
- Zure alabaren irakaslea **ikasle izan** nuen fakultatean.
- **Sailburu hautatu** naute.